# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia — Iruña, 2026ko urtarrilaren 13a — 2. ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00009. 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (4. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/ITP-00001. Interpelazioa, immatrikulatutako herri-ondasunei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (7. or.).

—11-26/ITP-00002. Interpelazioa, unibertsitate-sistemaren sendotasunari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (8. or.).

—11-26/ITP-00004. Interpelazioa, gazteei eta sare sozialetarako sarbidea arautzeari buruzkoa. Úrsula Pardo García andreak egin du (8. or.).

—11-26/ITP-00005. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabiltzan politikei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).

—11-25/MOC-00146. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiriarteko gaueko garraioaren beharrei buruzko azterlan bat bultza dezan, gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral baten bideragarritasuna baloratzeko. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi du (10. or.).

—11-25/MOC-00147. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarraren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak. Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (10. or.).

—11-25/MOC-00150. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak onetsi du (11. or.).

—11-25/MOC-00155. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (11. or.).

—11-25/MOC-00160. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita A mailako gaixotasunen prebentzio, kudeaketa eta kalte-ordainerako foru-sistema integratu bat ezar dezan, Agroseguroren parte hartzearekin. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (12. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-25/POR-00427. Galdera, Volvoren eta Sunsundeguiren artean sinatutako kontratuari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).

—11-25/POR-00428. Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriaren izapidetzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (13. or.).

—11-25/POR-00429. Galdera, EKLIPSE proiektuari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (14. or.).

—11-25/POR-00430. Galdera, Etxebizitza Eskuragarriko Europako Planari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (15. or.).

—11-25/POR-00431. Galdera, Emergentzia klimatikoari aurre egiteko Estatu Itunari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (15. or.).

—11-26/POR-00001. Galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (16. or.).

—11-26/POR-00002. Galdera, “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (16. or.).

—11-26/POR-00003. Galdera, I+G arloko inbertsioari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (17. or.).

—11-26/POR-00004. Galdera, autonomoei lehen kontratazioko ematen zaien laguntzari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (17. or.).

—11-26/POR-00005. Galdera, Justizia Departamentuaren egitura berriari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (18. or.).

—11-26/POR-00006. Galdera, hotzaldiak pertsona behartsuenengan duen eragina arintzeko premiazko neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (18. or.).

—11-26/POR-00007. Galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (19. or.).

—11-26/POR-00008. Galdera, NA-134 errepidearen Azagrako zatian istripu kopurua murrizteko neurriei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (19. or.).

—11-26/POR-00009. Galdera, airetiko konektibitate berrien lizitazio publikoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (20. or.).

—11-26/POR-00010. Galdera, landa-inguruneko larrialdiko arretako guneak ixteari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (20. or.).

—11-26/POR-00011. Galdera, Sorturen zuzendaritza berriari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).

—11-26/POR-00012. Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (21. or.).

—11-26/POR-00013. Galdera, Nafarroako landa-eremuko etxebizitzen arloko estrategia abian jartzeko urratsei, estrategiaren egoerari eta aurreikuspenei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (22. or.).

—11-26/POR-00014. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integraleko hiriarteko garraioko emakidak lizitatu eta zerbitzuan jartzeko aurreikuspenei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (22. or.).

—11-26/POR-00016. Galdera, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren kargu-uzteen egiazko arrazoiei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (23. or.).

—11-26/POR-00017. Galdera, Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko mailegu bat eman izanari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (23. or.).

—11-26/POR-00018. Galdera, jakiteko lehendakariak zer esan nahi duen “gobernu-ekintzari bultzada berri bat emateaz” ari denean, hori baita Gobernuaren egitura aldatzeko emandako arrazoia. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (24. or.).

—11-26/POR-00019. Galdera, kontseilari berriei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (24. or.).

—11-26/POR-00020. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren erronkei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (25. or.).
—11-26/POR-00021. Galdera, Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (25. or.).
—11-26/POR-00022. Galdera, legea eta etika publikoa urratzen dutenen aurrean hartu beharreko neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (26. or.).
—11-25/POR-00306. Galdera, Guardia Zibilak ematen zuen trafiko-zerbitzuaren gaineko eskumenak bere gain hartu ondoren beharrezkoak diren plazak betetze aldera Foruzaingoan egin beharreko lan publikoaren eskaintzari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (26. or.).

**A saila:**
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

# 11-25/LEY-00009. 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

*AKATS ZUZENKETA*

Bi akats aurkitu direlarik 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 16/2025 Foru Legean, zeina 260. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, 2025eko abenduaren 31koan, egin beharreko zuzenketak egiten dira:

**Bat**. 9. artikuluaren 8. apartatuan, honako hau esan ordez:

| | | |
|---|---|---|
| “A | ehuneko 55 | 101.875,45” |

Honako hau esan behar du:

| | | |
|---|---|---|
| “A | ehuneko 55 | 102.374,84” |

**Bi**. 18. artikuluan, honako hau esan ordez:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko irakasleek, lanbide-gaitasuna akreditatzeko prozeduretako aholkularitza- edo ebaluazio-faseetan esku hartzeko izendatuak baldin badira, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonek lan-esperientziaren edo beste prestakuntza-bide ez-formal batzuen bidez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta akreditatzeko prozedura Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura:

a) Akreditazio-prozedurako aholkulariak:

– Ordainsaria izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

Aholkatutako 3 gaitasun-unitate arte, 123 euro.

Aholkatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 153,75 euro.

Aholkatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago 184,50 euro.

– Osagarria, lanbide-arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatik, izangai berarentzat, 51,25 euro.

b) Akreditazio-prozedurako ebaluatzaileak:

– Ordainsaria, ebaluatzaile nagusia izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 133,25 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 169,13 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 205 euro.

– Ordainsaria, bigarren mailako ebaluatzailea izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 61,50 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 76,88 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 92,25 euro.

– Ebaluazio-batzordearen arduradun izateagatiko ordainsaria (taldeko).

Ebaluazio-batzordeko burua, 205 euro.

Ebaluazio-batzordeko idazkaria, 102,50 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza- eta ebaluazio-saioen prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozeduraren agirien kudeaketa. eta deialdia egiten duten administrazioekiko koordinazio-lana.

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du foru dekretuz baimentzea prozeduran esku hartzeagatiko ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jo baliteke egokiro gara daitezen lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko irakasleek, lanbide-gaitasuna akreditatzeko prozeduretako aholkularitza- edo ebaluazio-faseetan esku hartzeko izendatutakoek, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonek lan-esperientziaren edo beste prestakuntza-bide ez-formal batzuen bidez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta akreditatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa-egitura:

a) Akreditazio-prozedurako aholkulariak:

– Ordainsaria izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Aholkatutako 3 gaitasun-unitate arte, 123,6 euro.

• Aholkatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 154,5 euro.

• Aholkatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago 185,4 euro.

– Osagarria, lanbide-arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatik, izangai berarentzat, 51,5 euro.

b) Akreditazio-prozedurako ebaluatzaileak:

– Ordainsaria, ebaluatzaile nagusia izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 133,9 euro.

• Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 169,96 euro.

• Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 206 euro.

– Ordainsaria, bigarren mailako ebaluatzailea izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 61,8 euro.

• Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 77,26 euro.

• Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 92,7 euro.

– Ebaluazio-batzordearen arduradun izateagatiko ordainsaria (taldeko).

• Ebaluazio-batzordeko burua, 206 euro.

• Ebaluazio-batzordeko idazkaria, 103 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza- eta ebaluazio-saioen prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozeduraren agirien kudeaketa, eta deialdia egiten duten administrazioekiko koordinazio-lana.

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du foru dekretuz baimentzea prozeduran esku hartzeagatiko ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada egokiro gara daitezen lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak".

Honako hau esan behar du:

"1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko irakasleek, lanbide-gaitasuna akreditatzeko prozeduretako aholkularitza- edo ebaluazio-faseetan esku hartzeko izendatutakoek, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonek lan-esperientziaren edo beste prestakuntza-bide ez-formal batzuen bidez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta akreditatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa-egitura:

a) Akreditazio-prozedurako aholkulariak:

– Ordainsaria izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Aholkatutako 3 gaitasun-unitate arte, 123,6 euro.

• Aholkatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 154,5 euro.

• Aholkatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 185,4 euro.

– Osagarria, lanbide-arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatik, izangai berarentzat, 51,5 euro.

b) Akreditazio-prozedurako ebaluatzaileak:

– Ordainsaria, ebaluatzaile nagusia izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 133,9 euro.

• Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 169,96 euro.

• Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 206 euro.

– Ordainsaria, bigarren mailako ebaluatzailea izateagatik, izangai bakoitzeko, kasu hauetan:

• Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate arte, 61,8 euro.

• Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 77,26 euro.

• Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 92,7 euro.

– Ebaluazio-batzordearen arduradun izateagatiko ordainsaria (taldeko).

• Ebaluazio-batzordeko burua, 206 euro.

• Ebaluazio-batzordeko idazkaria, 103 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza- eta ebaluazio-saioen prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozeduraren agirien kudeaketa, eta deialdia egiten duten administrazioekiko koordinazio-lana.

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du foru dekretuz baimentzea prozeduran esku hartzeagatiko ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada egokiro gara daitezen lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# 11-26/ITP-00001. Interpelazioa, immatrikulatutako herri-ondasunei buruzkoa

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako interpelazioa, immatrikulatutako herri-ondasunei buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Herri-ondarearen defentsa funtsezko elementua da landa-garapenerako, tokiko autonomiarako eta gure herrien oroimen kolektiborako. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera bultzatutako ikerketari esker, aurrerapausoak eman dira titulartasun publiko egiaztagarria izaten ahal duten ondasun immatrikulatuak identifikatzeko bidean. Testuinguru horretan, egokia da jakitea zer balorazio egiten duen Departamentuak lortutako emaitzei buruz eta herri-ondasunen berreskuratze eraginkorra bermatzeko aurreikusitako jarduera-ildoei buruz. Horregatik, interpelazioa aurkezten diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, azaldu dezan zer lan egin den orain arte elizak immatrikulatutako herri-ondasunen ikerketan, eta zer irizpideri eta jarduketa-ildori jarraitu nahi dien Nafarroako Gobernuak 2026tik aurrera ondasun horiek berreskuratzeari lehentasuna emateko eta laguntza teknikoa, juridikoa eta baliabideena emateko inplikatutako toki-erakundeei.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

# 11-26/ITP-00002. Interpelazioa, unibertsitate-sistemaren sendotasunari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako interpelazioa, unibertsitate-sistemaren sendotasunari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako unibertsitate-sistema Foru Komunitatearen garapen sozial, ekonomiko eta zientifikorako zutabe estrategikoa da, bai eta lurralde-kohesiorako eta aukera-berdintasunerako ere. Irakaskuntzaren kalitateak, ikerketak, ezagutzaren transferentziak eta talentua erakartzeak eta atxikitzeak markatutako testuinguru batean, egokia da Nafarroako Gobernuak arlo horretan duen orientazio orokorra ezagutzea. Horregatik, Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari interpelazioa aurkezten zaio, azal ditzan Nafarroako unibertsitate-sistemaren sendotasunari eusteko eta hori indartzeko egiten ari den politika orokorra, bai eta Nafarroako Gobernuak bultzatu nahi dituen ildo estrategikoak ere.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

# 11-26/ITP-00004. Interpelazioa, gazteei eta sare sozialetarako sarbidea arautzeari buruzkoa

*ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako interpelazioa, gazteei eta sare sozialetarako sarbidea arautzeari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Úrsula Pardo García andreak, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikiak, Ganberaren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari denari zuzendutako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Ingurune digitalak osasun fisikoan eta mentalean eta haur eta nerabeen segurtasunean duen eraginari buruzko kezka gero eta handiagoa da. Egoera hori eratortzen da lineako jokabide eta joeretatik, zeinak ohikoak bezain arriskutsuak baitira eta eragin berezia baitute hauskortasun eta

zaurgarritasunezko bizitza-aldi batean. Besteak beste, horiek dira jazarpena, oldartzea, indarkeria digitala, frappinga, ziberbullyinga, groominga, sextinga, adikzioa, elikadura-jokabidearen nahasmenduen garapena eta zenbait manipulazio-modu.

Nafarroako gazteriak ere baditu erronka horiek, eta, horregatik, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari interpelazioa aurkezten zaio, gazteriari eta sare sozialetarako irispidea arautzeari buruzkoa.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Úrsula Pardo García

---

## 11-26/ITP-00005. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabiltzan politikei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabiltzan politikei buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren arloan darabiltzan politikei buruzko interpelazioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Kontratazio publikoari buruzko ondoz ondoko Europako zuzentarauetatik eratorritako arau-multzo zabala eta argia izan arren –Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea da arau horien artean funtsezkoa–, Nafarroako Gobernuak UCOren arabera % 45ean Santos Cerdánena den Servinabar enpresarekin sinatutako kontratuekin lotutako eskandaluak ezagutzen ari gara, kontratazio publikoko sistema osoaren sinesgarritasunari eragiten diotenak eta beharrezkoa egiten dutenak mota desberdinetako neurriak hartzea, nork bere gain hartu beharreko ardura politikoez eta izan litezkeen ardura penalez haratago.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-25/MOC-00146. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiriarteko gaueko garraioaren beharrei buruzko azterlan bat bultza dezan, gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral baten bideragarritasuna baloratzeko

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2026ko urtarrilaren 7an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiriarteko gaueko garraioaren beharrei buruzko azterlan bat bultza dezan, gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral baten bideragarritasuna baloratzeko. Erabakia eragin zuen mozioa Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu zuen, eta 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiriarteko gaueko garraioaren beharrei buruzko azterlan bat bultza dezan, gure erkidegorako gaueko garraioaren eredu integral baten bideragarritasuna baloratzeko".

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-25/MOC-00147. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarraren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak

*MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordeak 2026ko urtarrilaren 7an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita Ablitasko aerodromo militarraren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen du Ablitasko aerodromo militarraren inguruan jar ditzan, Defentsa Ministerioaren eskutik, azpiegitura horren jatorri historikoa esklabo-lanean datzala azaltzeko beharrezko seinaleztapen- eta interpretazio-elementuak".

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-25/MOC-00150. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean

*LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak 2026ko urtarrilaren 8an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa” deitu dezan hilabeteko epean. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foro horren deialdia egin dezan hilabeteko epean, bere jarduerari berriro ekin diezaion, salerosketaren eta sexu-esplotazioren aurkako borrokaren helburua betetze aldera”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-25/MOC-00155. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel

*KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2026ko urtarrilaren 7an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernua premiatzen du Israel FITUR 2026 Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzetik bazter dezan, bai eta bere irudia zuritzeko erakusleiho bat eskain diezaioketen gainerako azoka, kongresu eta jardunaldietatik ere, Palestinako herriaren kontrako genozidio-egoerari eusten dion bitartean.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen du FITUR 2026 nazioarteko turismo-azokan daukan ordezkaritzak bisita ofizial bat egin dezan Palestinaren erakustokira, Nafarroako herriak Palestinako herriaren auziarekin duen solidaritatea berresteko”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

# 11-25/MOC-00160. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita A mailako gaixotasunen prebentzio, kudeaketa eta kalte-ordainerako foru-sistema integratu bat ezar dezan, Agroseguroren parte hartzearekin

*LANDA GARAPENEKO ETA INGURUMENEKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko urtarrilaren 8an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita A mailako gaixotasunen prebentzio, kudeaketa eta kalte-ordainerako foru-sistema integratu bat ezar dezan, Agroseguroren parte hartzearekin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gehienez ere 6 hilabeteko epean, "A kategoriako gaixotasunen prebentzio, kudeaketa eta kalte-ordainetarako foru-sistema integratua" sor dezan, 2016/429 (EB) Erregelamenduaren araberakoa eta 389/2011 Errege-dekretuarekin bateragarria, honako neurri hauek jasoko dituena:

• sanitarioak,

• ekonomikoak,

• aseguru-mailakoak

• eta erantzun azkarrekoak.

2. Agrosegurekin eta ENESArekin negozia dezan A kategoriako gaixotasunetarako berariazko aseguru-sistema bat sortzea, zeinean Nafarroa erkidego pilotu edo erreferentziazko gisa sartu ahal izanen baita.

Negoziazioan honako hauek sartu beharko dira:

• osasun-modulu espezifiko bat sortzea,

• peritatze-sistema homogeneo bat,

• zuzeneko eta zeharkako galeren eta lortu gabeko irabazien estaldura,

• kofinantzaketa publiko-pribatua,

• eta ordainketa azkarreko protokoloak.

3. Aurrekontu-aldaketa/partida ireki bat aurkez dezan, A kategoriako epizootietarako urteko gutxieneko kontingentzia-funts bat bermatuko duena, gutxienez 100.000 eurokoa, arrisku epidemiologikoaren arabera eguneratu daitekeena.

4. 389/2011 Errege-dekretua eguneratzeko eska diezaion formalki Nekazaritza Ministerioari, zertarako eta:

a) kalte-ordainen zenbatekoak merkatuaren kostu errealera egokitzeko,

b) zeharkako galerengatiko konpentsazio-mekanismoak sartzeko,

c) Autonomia-erkidegoen eta Agroseguroren arteko hitzarmenak gaitzeko A kategoriako gaixotasunetarako”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:**
**GALDERAK**

# 11-25/POR-00427. Galdera, Volvoren eta Sunsundeguiren artean sinatutako kontratuari buruzkoa

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Volvoren eta Sunsundeguiren artean sinatutako kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari zuzendua:

Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren 144/2025 AR Erabakia jaso da, zeinaren bidez baiesten baita Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa. Erabaki horren berri eman zaie, kontratu osoan jasotako informazioa eskuratzeko modua eman diezadaten.

Baldin azkenean suertatzen bada enpresek ez dutela errekurtsorik aurkeztu, zuk ba al duzu asmorik Volvo eta Sunsundeguiren artean sinatutako kontratua niri bidaltzeko?

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

# 11-25/POR-00428. Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriaren izapidetzeari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasun Foru Lege berriaren izapidetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2025. urtearen hasieran, zenbait komunikabidetatik Fernando Domínguez Osasuneko kontseilariari galdetu zitzaion zer helburu zituen departamentuak 2025erako.

Eta erantzun zuen erronka ugari zeudela 2025erako, baina, zalantzarik gabe, Osasunari buruzko Foru Legea izapidetzen jarraitzea nabarmenduko zuela, lehentasunezko helburua izanen delako.

Hori dela eta, honako galdera hau egiten dut:

Zer fasetan dago Osasunari buruzko Foru Lege berriaren izapidetzea, eta zer aurreikuspen egiten dira 2026rako?

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

## 11-25/POR-00429. Galdera, EKLIPSE proiektuari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, EKLIPSE proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola ari da prestatzen Nafarroako Gobernua, EKLIPSE proiektuaren bidez, 2026ko abuztuaren 12ko erabateko eguzki-eklipseak Foru Komunitatean izanen duen inpaktu zientifikoa, kulturala, hezkuntzakoa, turistikoa eta segurtasunekoa?

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## 11-25/POR-00430. Galdera, Etxebizitza Eskuragarriko Europako Planari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Etxebizitza Eskuragarriko Europako Planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den abenduaren 16an, Europako Batzordeak Etxebizitza Eskuragarrien Europako Plana aurkeztu zuen, xedetzat duena laguntza ematea Europan etxebizitza eskuragarria, jasangarria eta kalitate onekoa eskuratzeko eskubidea bermatuta egon dadin.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Eskuragarrien Europako Planari buruz?

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## 11-25/POR-00431. Galdera, Emergentzia klimatikoari aurre egiteko Estatu Itunari buruzkoa

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Emergentzia klimatikoari aurre egiteko Estatu Itunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen Larrialdi Klimatikoari aurre egiteko Estatu-ituna inplementatu, hari atxiki eta hura eraginkortasunez aldezteko?

Iruñean, 2025eko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

---

## 11-26/POR-00001. Galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia diskriminazio- eta bazterkeria-egoerak aztertzeko eta prebenitzeko beharrezko tresna gisa aurkezten da. Haren lanari esker, politika publiko inklusibo eta eraginkorrak diseinatzeko lagungarri izanen litzatekeen informazioa biltzen ahalko litzateke. Era berean, aniztasunarekiko errespetuan eta eskubide-berdintasunean oinarritutako kultura sustatzen lagunduko luke.

Zer egoeratan daude gaur egun LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiaren sorrera eta abiaraztea?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## 11-26/POR-00002. Galdera, “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak Bofill Fundazioak sustatutako esperientzia batean parte hartu du Bartzelonan, "360 Hezkuntza" ikaskuntza integralaren ereduaren inguruan. Eredu horrek eskola-eremutik harago zabaltzen ditu hezkuntza-espazioak eta -denborak. Ekitatea eta hezkuntza-arrakasta hobetzeko tresna gisa aurkezten da, hain zuzen ere, eredu hori.

Nola sartuko dira horiek Nafarroan garatu nahi den pilotajearen diseinuan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-26/POR-00003. Galdera, I+G arloko inbertsioari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, I+G arloko inbertsioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2025aren amaieran ezagutarazitako datuen arabera, Nafarroa izan da 2024an bere BPGari dagokionez I+Gn inbertsio handiena egin duen autonomia-erkidegoa; zehazki, % 2,34koa izan da, 623 milioi eurotik gorako inbertsioa egin baita. Hazkunde handi horrek sendotu egin du Nafarroak ikerketaren eta berrikuntzaren arloan Estatuan duen erreferente-izaera. I+Ga oinarri estrategikoa da garapen ekonomikorako, enpresa-lehiakortasunerako eta kalitatezko enplegurako.

Zer jarduera-ildo ari zarete bultzatzen Nafarroaren lidergo hori sendotzeko eta baliatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## 11-26/POR-00004. Galdera, autonomoei lehen kontrataziorako ematen zaien laguntzari buruzkoa

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, autonomoei lehen kontrataziorako ematen zaien laguntzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Biurrun Urpegui andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Langile autonomoek funtsezko zeregina betetzen dute Nafarroako Foru Komunitateko ekoizpeneta gizarte-sarean, eta modu erabakigarrian laguntzen dute aberastasuna sortzen, enpleguari eusten eta gizarte-kohesioa lortzen.

Nafarroako Gobernuak autonomoen segurtasuna eta babesa indartuko duten politika publikoak bultzatu eta gauzatu behar ditu, haien ekimenen hazkundea bultzatzeko eta kalitatezko enplegu egonkorra sortzen laguntzeko.

Testuinguru horretan, eta lehen kontratazioari laguntzeko dauden neurrien norainokoa eta ezaugarriak ezagutzeko, honako galdera hau egiten dut:

Zertan datza Nafarroako Gobernuaren lehen kontrataziorako laguntza, autonomoei bideratutakoa?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## 11-26/POR-00005. Galdera, Justizia Departamentuaren egitura berriari buruzkoa

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako galdera, Justizia Departamentuaren egitura berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi jarri dira abian Iruñeko barruti judizialean instantziako auzitegia eta udalerriko justizia bulegoak, bake epaitegiak ordeztuko dituztenak.

Zer ekarriko du Justizia Departamentuaren egitura berri honek herritarren zerbitzurako eta nola ezarriko da Nafarroa osoan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## 11-26/POR-00006. Galdera, hotzaldiak pertsona behartsuenengan duen eragina arintzeko premiazko neurriei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, hotzaldiak pertsona behartsuenengan duen eragina arintzeko premiazko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubi-

de Sozialetako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer premiazko neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak berriki izan dugun hotzaldian hark pertsona behartsuenengan, bereziki azken egun hauetan kalean lo egin beharrean egon direnengan, duen eragina arintzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-26/POR-00007. Galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeanan izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Félix Zapatero Soria jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruz, 19/2019 Foru Legean eta 94/2022 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-26/POR-00008. Galdera, NA-134 errepidearen Azagrako zatian istripu kopurua murrizteko neurriei buruzkoa

*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, NA-134 errepidearen Azagrako zatian istripu kopurua murrizteko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde

Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri edo ekintza aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak NA-134 errepidearen Azagrako zatian istripu kopurua murrizteko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

---

## 11-26/POR-00009. Galdera, airetiko konektibitate berrien lizitazio publikoari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, airetiko konektibitate berrien lizitazio publikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren iritzian, zergatik geratu da esleitu gabe airetiko konektibitate berrien lizitazio publikoa?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## 11-26/POR-00010. Galdera, landa-inguruneko larrialdiko arretako guneak ixteari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, landa-inguruneko larrialdiko arretako guneak ixteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur argitu ahal duzu landa-inguruneko larrialdiko arretako zer gune itxiko diren, noiz itxiko diren eta erabaki horiek irizpide politikoen arabera negoziatzen ari zaren?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-26/POR-00011. Galdera, Sorturen zuzendaritza berriari buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Sorturen zuzendaritza berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi duzu aurrekontuetarako kide duzun EH Bildurekin lotutako Sortu erakundearen zuzendaritza berrian lau etakide ohi sartzeari buruz?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

## 11-26/POR-00012. Galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Bizi dugun unean klima-aldaketa ageriko errealitate bat da gure egunerokoan, eta premiazko erantzun eraldatzaileak eskatzen ditu. Horrekin lotuta, oso interesgarria da Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrak iragan abenduaren 16an Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zuen ondorioen txostena.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarrak iragan abenduaren 16an Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zuen ondorioen txostena dela-eta?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

---

## 11-26/POR-00013. Galdera, Nafarroako landa-eremuko etxebizitzen arloko estrategia abian jartzeko urratsei, estrategiaren egoerari eta aurreikuspenei buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako landa-eremuko etxebizitzen arloko estrategia abian jartzeko urratsei, estrategiaren egoerari eta aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak heldu den urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa-eremuko etxebizitzen arloko estrategia ezinbestekoa da despopulazio egoeran dauden eremuetako etxebizitza-arazoari estaldura, arreta eta konponbidea emateko, askotan ahazten den errealitatea baita. Estrategia hori 2026rako mugarrietako bat da; hori dela-eta, galdera hau egiten diogu kontseilariari: zer urrats egiten ari da departamentua, zertan da aipatu estrategia eta zer aurreikuspen dago hura gauzatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

---

## 11-26/POR-00014. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integraleko hiriarteko garraioko emakidak lizitatu eta zerbitzuan jartzeko aurreikuspenei buruzkoa

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integraleko hiriarteko garraioko emakidak lizitatu eta zerbitzuan jartzeko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornagok urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralaren ezarpenarekin lotuta, eta kontuan hartuta zenbait emakida garatu gabe daudela, zer aurreikuspen dauka Lurralde Kohesiorako Departamentuak Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integraleko hiriarteko garraioko emakidak lizitatu eta zerbitzuan jartzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 11-26/POR-00016. Galdera, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren kargu-uzteen egiazko arrazoiei buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren kargu-uzteen egiazko arrazoiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Gaurkotasun handiko galdera, 2026ko urtarrilaren 15eko Osoko Bilkurarako.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Zure lehendakariordearen eta Nafarroako Gobernuko Barneko kontseilariaren kargu-uzteen berri izan dugu. Zeintzuk izan dira kargu-uzte horien egiazko arrazoiak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

---

## 11-26/POR-00017. Galdera, Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko mailegu bat eman izanari buruzkoa

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko mailegu bat eman izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua, 2026ko urtarrilaren 15eko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntzari zer ekarriko dio Europako Inbertsio Bankuak 228 milioi euroko mailegu bat eman izanak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-26/POR-00018. Galdera, jakiteko lehendakariak zer esan nahi duen "gobernu-ekintzari bultzada berri bat emateaz" ari denean, hori baita Gobernuaren egitura aldatzeko emandako arrazoia

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko lehendakariak zer esan nahi duen "gobernu-ekintzari bultzada berri bat emateaz" ari denean, hori baita Gobernuaren egitura aldatzeko emandako arrazoia.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den astean, 2026ko urtarrilaren 8an, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivitek Nafarroako Gobernuaren berrikuntza esanguratsua iragarri zuen; hain zuzen, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariaren eta Gobernuko eledun eta Barneko eta Funtzio Publikoko kontseilariaren kargu-uzteak eta aipatu karguen ordezkoak.

Lehendakariak esan zuenez, Gobernua berritzeko arrazoia gobernu-ekintzari "bultzada berri bat" ematea izan da. Gertakari eta adierazpen horiek direla-eta:

Zer esan nahi du zehazki Nafarroako Gobernuko lehendakariak "gobernu-ekintzari bultzada berri bat emateaz" ari denean, hori baita Gobernuaren egitura aldatzeko emandako arrazoia?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## 11-26/POR-00019. Galdera, kontseilari berriei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, kontseilari berriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2026ko urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Chivite andrea: zer ekarpen eginen dute kontseilari berriek aurrekoek egiten ez zutena, Gobernuan aldaketa horiek egitera bultzatu zaituena?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-26/POR-00020. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren erronkei buruzkoa

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren erronkei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdobak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Behin aurrekontua onetsi eta 2026a hasita, kontuan izanda hau izanen dela legegintzaldiko azken urte osoa, bete gabe dauden proiektu eta ekintza guztiak abian jartzeko eta azeleragailua zapaltzeko tenorea da, legegintzaldiaren amaieran ahalik eta balantze onena lortze aldera. Hori dela eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zeintzuk dira zure departamentuak datozen hilabeteetarako dituen erronka nagusiak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

---

## 11-26/POR-00021. Galdera, Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuések urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzko izapideekin hasteko asmoa iragarri ondoren, zehazten ahal duzu zer zuzemen egin diren dagoeneko, zein egutegi darabilen Nafarroako Gobernuak eta nola bermatuko dituen benetako aurrerapausoak arlo horretan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 11-26/POR-00022. Galdera, legea eta etika publikoa urratzen dutenen aurrean hartu beharreko neurriei buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, legea eta etika publikoa urratzen dutenen aurrean hartu beharreko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariak urte amaierako mezuan baieztatu zuen “gupidagabe jokatu behar dela legea eta etika publikoa urratzen dutenekin”. Zer eginen duzu hori betetzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

## 11-25/POR-00306. Galdera, Guardia Zibilak ematen zuen trafiko-zerbitzuaren gaineko eskumenak bere gain hartu ondoren beharrezkoak diren plazak betetze aldera Foruzaingoan egin beharreko lan publikoaren eskaintzari buruzkoa

*OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

2026ko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Guardia Zibilak ematen zuen trafiko-zerbitzuaren gaineko eskumenak bere gain hartu ondoren beharrezkoak diren plazak betetze aldera Foruzaingoan egin beharreko lan publikoaren eskaintzari buruzkoa. Galdera 2025eko irailaren 23ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950